

**UDAL-BATZARRAK 2.002KO ABENDUAREN 5EAN EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

LEHENDAKARIA: Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Manuel Odriozola Iruretagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Mikel Zubillaga Galarraga
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Jose Martin Uzkudun Agirre

IDAZKARIA:

Nerea Etxebarria Atutxa

AZTERGAIAK:

- 1.-2002ko azaroaren 21eko aktaren onarpena.
- 2.- Alkatetzako dekretuen berri ematea 446zenbakitik 464zenbakira, biak barne.
- 3.-Autodeterminazio eskubidearen defentsa eta garzon epailearen azken autoarekin desadostasuna adierazteari buruzko mozioa.
- 4.-Saharar errefuxiatuen kanpamentutarako elikagai eta dirubilketari buruzko mozioa.
- 5.- Udal arkitektu teknikoaren dedikazio aldaketa.
- 6.- Udalbiltza Partzuegoan sartzeko proposamenaren onarpena.
- 7.- Tolosaldeko Alde Hemendik Plataformak proposaturiko mozioaren onarpena.
- 8.- Galde-erreguak.

Anoetako Udaletxean, bi mila eta biko abenduaren bostean, arratsaldeko zazpi terdietan, Udal-batzarra bildu da Ohiko Osoko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Nerea Etxebarria Atutxak, Udal honetan Idazkari Akzidentala bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1.- 2002ko azaroaren 21eko aktaren onarpena.

Aipaturiko akta alkateak irakurri du eta udalbatzarrak ahobatez onetsi du akta, “*Udal Ordenanantza Fiskalen aldaketak hasierako izaeraz oneatea*” izenburuko laugarren puntuan ondorengo zuzenketa eginez:

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

VI BONIFIKAZIOA

Etxebizitzetan igogailua jartzea arrazio sozialengatik interes publikoko obra deklaratu denez, 10 urte baino gehiagoo etxebizitzetan igogailua instalatzearen kasuan %95eko bonifikazioa izango dute eskaera egiterakoan Udalarekin inolako zorrik edo betegabeko obligaziorik ez duten auzotarren komunitateek.

Auzotarren komunitateko kideren batek edo batzuek zorrik edo betegabeko obligaziorik izanez gero, Osoko Bilkuraren esku utziko da bonifikazioa lortu ahal izatearen erabakia eta honen kopuruaren zehaztapena.

Bonifikazioa lortu hal izateko, beti eskatu egin beharko da.

2.-Alkatetzako Dekretuen berri ematea, 446 zenbakitik 464 zenbakira,biak barne.

Alkateak emandako ebazpenen berri ematen du, horiek 2002.urteko 446tik 464ra bitartekoak izanik, biak barne.

Udalbatza jakitun geratzen da.

3.-Autodeterminazio eskubidearen defentsa eta Garzon epailearen azken autoarekin desadostasuna adierazteari buruzko mozioa .

Alkateak ondorengo mozioa irakurri du:

MOZIOA

“Nazio Batuen Erakundeak onartutako Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 1.artikuluari agertzen da Autodeterminazio Eskubidea. Hain maila gorena duen eskubidea izan arren, bere aurkako adierazpen eta eraso ugari jasan behar izan dugu Euskal Herrian.Urrunago joan gabe, Urriaren 16an Madrileko Audientzia Nazionaleko Instrukzioko 5.zenbakiko Epaitegi Zentraleko Garzon epaileak, 35/2002 sumarioaren barruan, kaleratutako auto berria hortxe daukagu.Epalile honek, -Espainiako Gobernuaren eta Espainiako hainbat komunikabide eta estamentu politiko, juridiko, sozial eta militarren babesarekin- traiektoria luzea du Euskal Herriaren eta euskal hiritarren aurkako ebazpenak ematen eta inolako oinarri juridikorik ez duten autoak ateratzen.

Oraingo honetan, autoak duen intezionalitate politiko nabariak gain, Euskal Herriaren errealitate sozialari buruzko interpretazio zentzugabeak egiten ditu, nolabaiteko obsesio baten isla izan daitezkeenak.Honela, besteak beste, legean oinarriturik egiten diren “jaiotze berrien erregistro aldaketak” hauteskunde erroldaren manipulaziotzat jotzen du;nazioarteko zuzenbideak definitzen eta arautzen duen autodeterminazio eskubideari buruzko burutazio eta asmakizun izugarriak planteatzen ditu, berez eskubidea dena delitu bihurtu arte;batasuna erakunde politikoaren lan ildoetara buruzko interpretazio subjektibo eta bitxiak egiten ditu;kargu publikoen balizko ordezkapenei buruz mintzatzen da; hauteskundeetako emaitzak nazien garaiko Alemanian gertatutakoaz parekatzen ditu....

Finean, Garzonek bere marka guztiak hautsi egin ditu, eta auto berri honekin, espainiako justizia sistemaren benetako aurpegia erakusten digu:Gobernuak dituen beharrian politikoen menpekoa eta interes politikoen arabera.

Oraingoa, ordea, ez da epaile honen jokaera kuestionatua izaten den lehendabiziko aldia.Izan ere, begi bistakoa da epaile honek hartzen dituen erabaki gehienek duten oinarri eta fundamentu juridiko falta, bai eta Estatuako Gobernuak duen interes politikoen erabateko atxikimendua.Gasteizko Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi du epaile honek prebentzio-delitua egin duela bere ebazpenekin eta beraren aurkako kereila aurkeztu du Espainiako Epaitegi Gorenaren aurrean; kereila honetan, besteak beste, segurtasun falta juridikoa sortaraztea leporatzen dio epaile honi, bai eta oinarritzko eskubide batzuen urraketarako neurriak hartzea.

Hau guztia dela eta, honako erabakiak hartzea proposatzen da:

1)Udal honek Nazio Batuen Erakundeak onartutako Eskubide Zibil eta politikoen Itunaren 1.artikuluari agertzen den Autodeterminazio Eskubidea berretsi eta bere aldeko defentsa irmoa egingo duela aldarrikatzen du.

2)Udal honek erabateko desadostasuna adierazten du, Garzon Epailearen 2002ko urriaren 16ko autoaren aurrean.Epaileak Euskal Herriko errealitateaz egiten duen kontaketa zeharo faltsua da eta euskal herritarrentzako iraingarria.Gainera, epailearen jarrerak eta autoaren edukiak Euskal Herriko bizitza politikoan onartu ezinezko hamaikagarren esku-hartzea suposatzen dute.Batetik, autoak inolako oinarri juridikorik ez duelako, eta bestetik, lehendabizi akusazioak egiten diralako eta, ondoren, akusazioak mantentzeko frogak eskatzen direlako. Akusazioa alde aurretik egiten da, frogetan eta irizpide objektiboetan oinarritu gabe.

3)Udal honek, Garzonen auto berri honetan ematen den Autodeterminazio Eskubidearen kriminalizazio saioa salatu egiten du. Honen helburua, nazioarteko zuzenbideak jasotzen duen funtsezko eskubide honen balizko gauzapenerako oztopoak jartzea da, epaile bati ez dagozkion funtzio eta balorazio politikoetan sartuz.

4)Udal honetatik, berretsi egiten dugu proiektu politiko guztiak zilegiak direla eta, beraz, bere defentsa eta gauzapenerako aukera berdinak izan behar dituztela.”

EAJ-PNV/EA talde politikoko Jose Ignacio Otermin bozeramaleak mozioarekin ados daudela adierazi ondoren galdetzen du hainbeste daudelarik ea zein den azken auto hau eta Mikel Errazkin ASA taldeko zinegotziak azaltzen dio auto horren edukina zein den.

Erabakia:

Udalbatzarrak ahobatez onartu du mozioa.

4.-Saharar errefuxiatuen kanpamentutarako elikagai eta dirubilketari buruzko mozioa.

Alkateak gaur bertan azken orduan faxez jasotako oharraren berri ematen du, aurkezleek mozioa ez tratatzeko esanez bidali dutena Legebiltzarra beste textu bat prestatzen ari delako eta hura izango baita Udaletxeetan tratatuko dena.

Hortaz, Alkateak, zinegotzi guztien adostasunarekin, gai zerrendatik kanpo uztea erabaki du mozio hau.

5.-Udal arkitektu teknikoaren dedikazio aldaketa.

Alkate jaunak partaideei adierazi die iaz bezala aurten ere aparejadorearen dedikazio aldaketa proposatu dela Euskara Batzordetik, euskerako plangintzaren barruan sartzen delako eta proposamena iazkoaren berdina dela baieztatzen du Mikel Errazkin Euskara Bartzordeburuak.

Erabakia:

Udalbatzarrak ahobatez honakoa erabaki du:

Lehenik: Udaleko aparejadorea den Andres Oiarbide Antia jaunaren lanordu kopurua astean 10 orduz handitzea, eta ondorioz, dedikazioa %54ean finkatzea, astean 20 orduko lan -jardunaz.

Bigarrenik: Aurreko erabakia atzeraeginez aplikatzea, 2002ko urriaren 1etik 2003ko ekainaren 19arte, biak barne.

6.-Udalbiltza Partzuergoan sartzeko proposamenaren onarpena.

Alkateak gaia aurkeztu du esanez, uste duela iaz ere Osoko Bilkuran tratatu zela gai gau eta mahai gainean geratu zela. Ondoren, erabakitzea ekarritako proposamena zein den azaldu du.

Ikusirik Euskal Herriko udalerrien arteko harremanak sendotu eta interes amankomunak elkar bultzatzeko “Udalbiltza Partzuergoa” izenez eraturiko Entitate publikoari buruzko espedientea.

Jose Ignacio Otermin, EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramaileak esaten du euren postura ezaguna dela gai honetan, euren Udalbiltza bezala lehenengo Udalbiltza onartzen dutela soilik. Udalbiltza hau ez dutela errekonozitzen esaten du.

Jose Maria Sarasola Alkate jaunak esaten du berak argitu nahi duela hau dela lehenengo Udalbiltza. .

Erabakia:

Alkateak proposamena bozketara eraman du eta jarraian zehazturiko emaitzak izan dira

Aldeko botuak: 5 (ASA taldeko Zinegotziak)

Aurkako botuak:3 (EAJ-PNV/EA koalizioko zinegotziak)

Abstentzioak:0

Udalbatzarreko gehiengo osoa osatzen duten zinegotziek honakoa erabaki dute:

Lehenik: Anoetako Udala “*Udalbiltza Partzuergoa*” eta bere estatutuekin bat dator eta bertan sartzeko eskaera luzatzen dio Partzuergo horren Kontseilu Nagusiari.

Partzuergoaren eraketa akta zein estatutuak erabaki honi eransten zaizkio.

Bigarrenik: 18.500 euro hasierako ekarpen gisa onartzea Partzuergoaren eraketa gastuak zein harturiko konpromezuak bilduko dituen.

Hirugarrenik:Urtero dagokion kuotaren ordainketa egitea.

7.-Tolosaldeko Alde hemendik Plataformak proposaturiko mozioaren onarpena.

Alkateak “*Tolosaldeko Alde Hemendik Plataformak*” aurkezturiko ondorengo mozioa irakurri du:

MOZIOA

“Euskal Herria pairatzen ari den egoera politiko-soziala inoiz baino gordinagoa da.Egoeraren azterketa egiteko garaian alde guztiak bat datoz muinean gatazka politikoa dagoela egiaztatzeko.Hortik aurrera, berriz, gatazka horrek dituen bazterrak, eta bertan kokatzen diren pentsamolde ezberdinek duten bizipenaren arabera, gatazkaren jatorriaren irakurketa alde batekoa edo bestelakoa egiten dute.

Tolosaldeko Alde Hemendik plataforma osatzen dugun herritarren aburuz, Euskal Herrian pairatzen dugun egoera gatazkatxoa eskubideen urraketan oinarritzen da, alegia, Euskal Herriari ez dagozkion konstituzio espainol eta frantsesa inposatu nahi zaio. Euskal Herritarrek bestelakoa eskatzen dute, guk nahi duguna zera da, Demokrazia Euskal Herriarentzat, hau da,

gure herriari erantzuten dion, bere neurrian egindako, bere burujabetza bermatzen duen demokrazia.

Euskal Demokrazia ez dugun bitartean inposaketa baten egoeran bizitzeko kondenatuak izango garelakoan gaude. Eta inposaketa dagoen herrian okupazio poliziala ematen da beti. Gure eskualde honetan aski dakigu horretaz. Zenbat inbasio egiten dituzte gure herrietan polizi espainolek edota beraien kontrolpean dauden “vaskongadetako” poliziek? Zenbat kontrol? Zenbat mihaketa? Zenbat atxiloketa? Zenbat tortura? Zenbat espetxeratu? Zenbat herbestera? Zenbat...zenbat...zenbat.

Gure herriaren zati batean, Hego Euskal Herrian, duela 25 urte, alderdi autonomistekin babesarekin, PNVrekin alegia, Euskal Herriak pairatzen zuen inposaketa horrek konstituzioarekin homologazio berri bat lortu zuen. Geroztik askotan entzun behar izan dugu helburua Espainean eroso egotea zela. Gaur berriro PNVk beste aukera bat ematen dio Estatu espainolari, hots, “Plan Ibarretxe” delakoa.

Garaia iritsi da behin betiko ozenki “Alde hemendik” esateko. Utz gaitzaten bakean. Horrela Euskal Demokrazia eraikitzeke oinarritzko baldintza izango dugu. Hori da gure herritarrek behar duten “tolerantzia”, horrela bai benetako urratsa egingo da elkarren arteko “konbidentziarako”, horrela bai gure herriak bakea ezagutuko du.

Hau guztiau dela eta, honako erabakiak hartzea proposatzen da:

-1, Udal honek zera salatzen du: Gure herrian zein eskualdean ematen den okupazio poliziala, Euskal Herriaren errespetuaren aurka jotzeaz gain, herri honi zor zaion normalizazio politikoa atzeratzea besterik ez du egiten.

-2, Udal honek, gaur egun Euskal Herriaren herritarrei indarrez aplikatzen zaien konstituzioak gure herriaren beharrei zein nahiei ez dietela erantzuten salatzen du.

-3, Euskal Herriak bakean bizi dadin Euskal Demokrazia behar du eta horren alde udal honek aldarrikapen zuzena egiten du.

-4, Udal honek “Tolosdaldeko Alde hemendik Plataforma”-k antolatu dituen ekimenekin bat egiten duela adierazten du.

-5, Udal honek bi ardurak hartzen ditu, batetik aabenduaren 6tik 10era, hau da, konstituzio egunetik Giza Eskubideen nazioarteko egunera, udaletxearen balkoian “Euskal Demokrazian oinarriturik, giza eskubideak Euskal herriarentzat” lemapean pankarta jartzea. Eta bestetik, abenduaren 10ean kontzentrazio batera deitzea pankartak dioen bezala “Euskal Demokrazian oinarriturik, giza eskubideak Euskal herriarentzat” lemapean eguerdiko 12etan udaletxearen aurrean.

-6, Udal honetatik, Euskal demokrazian oinarriturik proiektu politiko guztiak zilegiak direla berretsi egiten dugu eta, beraz, bere defentsa eta gauzapenerako aukera berdina izan behar dituzte”

EAJ-PNV/EA taldeko bozeramailea den Jose Ignacio Otermin jaunak mozio honen guztiz aurka daudela esaten du EAJ-PNVren aurkako erreferentziengatik beste arrazoien artean eta aurka bozkatuko dutela.

Erabakia:

Alkateak mozioa bozketara eraman du eta jarraian zehazturiko emaitza izan da:

Aldeko botuak: 5 (ASA taldeko zinegotziak)

Aurkako botuak: 3 (EAJ-PNV/EA taldeko zinegotziak)

Abstentzioak: 0

Udalbatzarreko gehiengo osoa osatzen duten zinegotziek mozioa onetsi dute.

8.- Galde-erreguak.

Jose Ignacio Otermin EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramaileak Alkateari galdetu dio Polikiroldegiaren proiektua idazteko eginiko kontratazio zuzena legekontrakoa zelaren inguruan esan zuela txosten bat eskatuko zuela eta oraindik ez denez ezer aurkeztu jakin nahi duela gai hori nola dagoen.

Alkateak erantzun dio ARAUDI S.L.-ri eskatu ziola gaia aztertzeke eta horren inguruko txostenen bat egitea. Aste honetan ez dela egon baina espero duela hurrengoan eurekin egotea eta galdetuko diela gaia nola dagoen.

Eta beste aztergaririk ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko zortziak hamar gutxiago diranean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.

Nerea Etxebarria Atutxa

Idazkari akzidentala

O.E.

Jose Maria Sarasola Goenaga

Alkatea